

euskadikomuseoaketabildumak

2 0 1 0

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Aurkibidea

Aurkezpena	3
Metodologia	4
1. EGUNGO MUSEO-ESKAINZAREN TESTUINGURUA	6
1.1. Museo eta bilduma motak	6
1.2. Titulartasuna	8
1.3. Kudeaketa-modalitatea	9
2. ERAKUNDEEN EZAUGARRI NAGUSIAK	11
2.1. Antzinakotasuna	11
2.2. Patronatuak eta lagunen elkarteak	12
3. AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA	14
3.1. Eraikinaren ezaugarriak	14
3.2. Zerbitzuak eta ekipamendua	17
3.3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	18
4. SARBIDEA	20
4.1. Jendaurreko irekitze-modalitatea	20
4.2. Sarbide mota	21
4.3. Doako sarrera edo tarifaduna	21
5. BISITARIAK	24
6. ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK	27
6.1. Erakusketak eta beste jarduera batzuk	27
6.2. Argitalpenak	29
7. GIZA BALIABIDEAK	31
7.1. Lan-harremanak	31
7.2. Lanbide-kategoria	32
7.3. Generoa	34
7.4. Lanaldi mota	35
7.5. Praktiketako langileak	36
8. ERAKUNDEEN EKONOMIA-DATUAK	37
8.1. Finantzaketa eta diru-iturriak	37
8.2. Gastuak	38
9. MUSEO-FUNTSAK	40
Eranskinak	
I. 2010eko estatistiketan ageri diren museoak eta bildumak	42
II. Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia	44
Irudien aurkibidea	56

AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Museoen Zentroak eroldari buruzko estatistika-ikerketara egiten du, bi urtean behin; ikerketa horren helburua, zehazki, EAEko museoetara eta bildumetara buruzko informazio eguneratua biltzea da. Txosten honetan, 2010. urteari dagokion azterketan lortutako emaitza nagusiak sartu ditugu.

Txosten honen helburua museo-sektorearekin lotutako alderdien ikuspegi orokorra ematea da; zehazkiago esateko, erakundeen ezaugarri orokorrak, zerbitzuak eta ekipamenduak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskuratzen eta baliatzen ote diren, erakundeok zenbat bisitari duten, erakusketak eta garatzen dituzten beste hainbat jarduera, baliatzen duten giza baliabideen sarea, erakundeen datu ekonomikoak eta museo-funtsak.

2010eko ikerketan orotara hiru lurralde historikoetako 63 museoak eta bildumak hartu dute parte.


Txosten honen emaitzak oso baliagarriak dira museoek eta bildumek euskal kulturari bizi duten egoera ezagutarazteko; gainera, aukera ematen du hiru lurralde historikoen arteko alderaketa egiteko, bai eta beste lurralde batzuekin konparatzeko ere.

METODOLOGIA

Txosten honetan, museoen eta bildumen inguruko 2010eko datuak hartuta egindako estatistikak aztertzen dira. Lortutako emaitzak eman aurretik, hainbat ohar:

- **Parte-hartzea.** Txosten honen emaitzek Euskadiko 63 museoak eta bildumak emandako datuak biltzen dituzte; hau da, % 98,4ko erantzun-maila. (Ikus 1. eranskina: *2010eko estatistikan parte hartu duten museoen eta bildumen zerrenda.*) 2008ko estatistikei dagokienez, honako alderdi hauek adierazi beharra dago: Chillida-Leku museoaren itxiera; Naipe museoak eta Arkeologia Museoak bat egin izana (BIBAT du izena gaur egun); aurten Legazpiko museoak elkartu dituen Lenbur lurralde-museoaren sorrera, aurretik bereizita kontatzen baitzuten.

1. irudia. Inkestan lortutako erantzun-maila (%). 2010



Oinarria: 64 museo eta bilduma

- **Edukien egituraketa.** Txosteneko kapituluak, neurri handi batean, ikerketan erabilitako galdetegiko atalak bezala daude banatuta. Esate baterako, erakundeei buruzko datu orokorrak; azpiegitura, zerbitzuak eta ekipamendua; sarbidea; erakundeen lana; langileak; datu ekonomikoak edota museo-funtsak. (Ikus 2. eranskina: *Ikerketa egiteko erabilitako galdetegia.*)
- **Emandako informazioa.** Esku hartu duten museo eta bilduma guztiek ez diete galdetegiko elementu guztiei erantzun; hori dela eta, emandako informazioa ez da berdina azterketako aldagai guztietan. Horrenbestez, grafiko edo taula guztietan ageri da erantzun-oinarria; hau da, aldagai bakoitzari zehazki erantzun dion erakunde-kopurua.

2. irudia. Ikerketaren fitxa teknikoa. 2010

Metodologia	Norberak betetako inkesta
Informazioa eskuratzeko tresna	Galdera itxidun galdetegia
Lortutako azken lagina	63 museo eta bilduma
Informazioa biltzeko fitxa	2011ko urtarrila eta otsaila
Eremu geografikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa

1.


EGUNGO MUSEO-ESKAINZAREN TESTUINGURUA

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumen tipologia, jabetza eta kudeaketa-ereduak aztertzen dira.

1.1. MUSEO ETA BILDUMA MOTAK

Euskadiko museoek eta bildumek, oro har, kultur ondarearen adar jakin bat izan ohi dute ardatz; kopuru osoaren % 23,8k, hain justu. Horren ostean, etnografia- eta antropologia-museoak, historikoak eta aztarnategiak datoz, ehuneko bertsuarekin (% 11,1). Euskal Autonomia Erkidegoan gutxien ageri diren museoak arte garaikidearekin lotutakoak, museo-etxeak, dekorazio-artei eskainiak eta tankerakoak dira.


3. irudia. Museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (%). 2010



Oinarria: 63 museo eta bilduma

* Kategoria honetan beste tipologietan bil ezin ditzakegun museoak eta bildumak sartuko genituzke.

4. irudia. Museoak eta bildumak lurralde historikoen arabera (%). 2010



Oinarria: 63 museo eta bilduma

Lurralde historikoak hartuta, Gipuzkoak du museo eta bilduma gehien; hain zuzen, % 42,9. Ondoren, Bizkaia, guztizkoaren % 34,9rekin, eta, azkenik, Araba % 22,2rekin.

5. irudia. Museoak eta bildumak, tipologiaren eta lurralde historikoen arabera (% bertikala). 2010

Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Arkeologikoak	7,1	4,5	7,4
Arte Garaikidea	7,1	4,5	--
Dekorazio-arteak	--	4,5	--
Arte Ederrak	14,3	13,6	--
Museo-etxeak	--	--	7,4
Zientzia eta Teknologia	--	9,1	11,1
Natura-zientziak eta Historia Naturala	7,1	--	11,1
Azarnategiak	14,3	9,1	11,1
Espezializatuak	35,7	22,7	18,5
Etnografia eta Antropologia	14,3	9,1	11,1
Orokorra	--	--	11,1
Historikoa	--	22,7	7,4
Bestelakoak	--	--	3,7

Oinarria: 63 museo eta bilduma

Gipuzkoaren kasuan, tipologia ugaritako erakundeak daude, nahiz eta arte garaikideari, dekorazio-artei edota arte ederrei eskainitako museorik eta bildumarik apenas dagoen.


Bizkaian, bestalde, museo eta bildumen % 60 inguru hiru tipologiatan bil dezakegu: museo espezializatuak, historikoak eta arte ederretakoak.

Arabaren berriz, museo eta bilduma espezializatuak dira, batez ere, nagusi.

1.2. TITULARTASUNA

Euskadiko museo eta bilduma gehien-gehienek titulartasun publikoa daukate. Titulartasun pribatuko erakundeak, berriz, % 33,9 dira, eta mistoak, erakunde publiko eta pribatuenak, % 5.


6. irudia. Museoen eta bildumen titulartasuna (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma

Titulartasun publikoaren baitako figura juridikoak aztertzen hasita, nabarmentzekoa da toki-administrazioen jabetza (% 84,2). Bestelako titulartasunek eta administrazio autonomikoak garrantzi txikiagoa dute (% 10,5 eta % 5,3, hurrenez hurren). Toki-administrazioak banatzen hasita, foru-aldundien partaidetza eta udalena bereizi behar da (% 50,0 eta % 40,6, hurrenez hurren). Administrazio autonomikoaren kasuan, beste sail batzuen partaidetza nabarmendu behar da.

7. irudia. Titulartasun publikoko museoen eta bildumen figura juridikoa (%). 2010



Oinarria: 38 museo eta bilduma

8. irudia. Titulartasun pribatuko museoen eta bildumen figura juridikoa (%). 2010


Figura juridikoa	Guztizkoaren %
Fundazioa	52,4
Elizakoa	9,5
Sozietatea	9,5
Lagun bakarrarena	9,5
Elkartea	4,8
Beste batzuk	14,3

Oinarria: 21 museo eta bilduma

Fundazioak dira Euskadiko museo eta bildumen titulartasun pribatuko erakunde nagusiak; beste figura juridiko batzuk, ordea, urriagoak dira (elizarenak, sozietateak, lagun bakarrarenak, elkartek).

1.3. KUDEAKETA-MODALITATEA

Museoak eta bildumak antolatzen eta kudeatzen dituzten erakunde pribatuen ehunekoa handixeagoa da, nahiz eta ehuneko hori publikoenetatik askorik aldentzen ez den. Hala, erakunde batzuek, titulartasun publikoa izanik ere, kudeaketa pribatua dute. Bestalde, museoen eta bildumen % 5 inguruk kudeaketa partekatua egiten dute erakunde publikoen eta pribatuen artean.

9. irudia. Museoak eta bildumak kudeatzen dituzten erakundeak (%). 2010

Oinarria: 62 museo eta bilduma


10. irudia. Museoen eta bildumen erakunde kudeatzaile pribatuak (%). 2010

Erakunde pribatuak	Guztizkoaren %
Fundazioa	48,4
Sozietatea	22,6
Elkartea	9,7
Elizakoa	3,2
Lagun bakarrarena	0,0
Hainbat erakunde pribatu	0,0
Beste batzuk	16,1

Oinarria: 31 museo eta bilduma

Kudeaketa pribatua duten museoen eta bildumen artean, fundazioak dira nagusi (% 48,4). Sozietateek eta tankerako beste hainbat erakundek badute nolabaiteko pisua (% 22,6). Elizaren elkartek eta erakundeek, berriz, ez dute pisu handirik erakunde kudeatzaile gisa. Erakunde edo museo batek ere ez du adierazi lagun bakarrak kudeatua denik edota lan horiek modu konbinatuan egiten dituenik (hainbat erakunde pribaturen artean).

11. irudia. Museoen eta bildumen erakunde kudeatzaile publikoak (%). 2010



Oinarria: 28 museo eta bilduma

Ondareen titulartasunaren kasuan bezalaxe, museo-guneen kudeaketa publikoa toki-administrazioak hartzen du beren gain, batez ere udalek (% 39,1) eta foru-aldundiek (% 34,8), eta neurri txikiagoan beste hainbat toki-erakundek ere bai.

2.


ERAKUNDEEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Atal honetan, Euskadiko museo eta bildumen ezaugarriak aztertuko ditugu; esate baterako, zer antzinakotasun duten edota patronaturik edo lagun-elkarterik ba ote duten.

2.1. ANTZINAKOTASUNA

Museoak eta bildumak zer urtetan sortu ziren erreparatzen badugu, ohartuko gara azken 25 urteetan sortu direla % 80 baino gehiago. Erakundeek, batez beste, 37,2 urte dituzte, eta 1975-2000 bitartean sortu zen bilduma eta museo gehien.

12. irudia. Museoen eta bildumen antzinakotasuna (sortu ziren urtearen arabera, %). 2010



Batez besteko antzinakotasuna: **37,2 urte**

Oinarria: 60 museo eta bilduma

Bizkaian daude museo eta bilduma zaharrenak; izan ere, 25 urte baino gehiagoko erakunde gehien bertan daude, gainerako lurralde historikoekin alderatuta. Erakunde berrienak, aldiz, Gipuzkoan daude; izan ere, % 30 orain hamar urte baino berrikiago ireki baitituzte.

13. irudia. Museoen eta bildumen antzinakotasuna lurralde historikoka (sortu ziren urtearen arabera, % bertikala). 2010


Urteak, sortu zenetik	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
10 urte baino gutxiago	14,3	28,6	32,0
10 eta 25 urte bitartean	71,4	47,6	52,0
25 urte baino gehiago	14,3	23,8	16,0

Oinarria: 60 museo eta bilduma

2.2. PATRONATUAK ETA LAGUNEN ELKARTEAK

Euskadiko museo eta bilduma gehienek ez dauka ez patronaturik, ez lagun-en elkarterik (% 66,1). Babes mota hori dutenen (% 33,9) erdiek baino gehiagok bi babesok konbinatzen dituzte (% 52,4).


14. irudia. Patronatua edo/eta lagun-en elkartera duten museoak eta bildumak (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma


Zientzia- eta teknologia-museoek eta tankerako museo espezializatuek, oro har, patronatu edota lagun-en elkarterak gehiagotan izaten dituzte. Museo eta bilduma arkeologikoetan, natura-zientzietakoetan edota historia naturalekoetan izan ezik, gainerako tipologia guztietan dago patronatua, lagun-en elkartera edota biak dituen erakunderen bat.

15. irudia. Patronatua edota lagun-en elkartera duten museoak eta bildumak, tipologiaren arabera (%). 2010



Oinarria: 21 museo eta bilduma

16. irudia. Patronatua edota lagunen elkartea duten museoak eta bildumak, lurralde historikoaren arabera (%). 2010



Oinarria: 21 museo eta bilduma

Lurralde historikoak kontuan hartuta, patronatuak eta lagunen elkarteak gehien Gipuzkoan erabiltzen dira; hain zuzen, lurralde horretako museoen eta bildumen % 52,4k. Ohitura hori ez dago hain errotuta Araban.

3.


AZPIEGITURA, ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUA

Kapitulu honetan, museoak eta bildumak hartzen dituzten eraikinen ezaugarri nagusiez jardungo dugu, baita beren ekipamenduez edota eskaintzen dituzten zerbitzuez ere. Azkenik, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraz ere arituko gara.

3.1. ERAIKINAREN EZAUGARRIAK

Museoak eta bildumak hartzen dituzten eraikinen % 45 baino pixkatxo bat gehiago 1900. urtea baino lehen sortuak dira. Eraikinen % 12,7 1950 baino lehen sortuak dira, eta % 40 inguru 1940tik gaur egun bitartean eraikita daude.


17. irudia. Museoak eta bildumak hartzen dituzten eraikinen altxatu zituzten urtea (%). 2010



Oinarria: 55 museo eta bilduma


Parte hartzen duten museo eta bilduma gehienak oraindik orain berritu dituzte, duela hamar urte baino gutxiago, hain zuzen (2000. urtearen ondoren). Erakundeen % 8,2k baino ez du esan azken 20 urteetan ez dituztela berritu.

18. irudia. Museoak eta bildumak eraberritu zituzten azken urtea (%). 2010



Oinarria: 49 museo eta bilduma


19. irudia. Museoak eta bildumak, eraikin motaren arabera (%). 2010



Oinarria: 59 museo eta bilduma

Euskadiko hamar museotatik zazpi inguru jatorriz beste erabilera batzuetarako sortutako eraikinetan daude, nahiz eta museo izateko egokituta dauden. Hasiera-hasieratik museo izateko sortutako eraikinetan % 22 baino ez daude, eta gainerakoek bi aukerak batera dituzte.

20. irudia. Museoak eta bildumak, eraikin kopuruaren arabera (%). 2010



Oinarria: 63 museo eta bilduma

Museo eta bilduma gehienek eraikin bakarra daukate. Neurri txikiagoan, bi eraikin edo gehiago dituzten museoak ere badaude. Azken talde horren barruan, Lenbur lurralde-museoa daukagu, Legazpiko hainbat museo elkartzen dituena.

21. irudia. Museo eta bildumen batez besteko azalera erabilgarria, tipologiaren arabera. (balio absolutua, m2). 2010

Tipologia	Azalera erabilgarria (m2)
Espezializatuak	46.662
Arte Garaikidea	18.750
Orokorra	5.736
Zientzia eta Teknologia	4.685
Arte Ederrak	4.362
Dekorazio-arteak	2.460
Etnografia eta Antropologia	1.386
Arkeologikoak	1.329
Historikoa	1.202
Aztarnategiak	1.390
Natura-zientziak eta Historia Naturala	318
Museo-etxeak	225
Bestelakoak	27.932
GUZTIRA (azalera erabilgarria)	14.640

Oinarria: 59 museo eta bilduma

Inkestari erantzun dioten museoen eta bildumen azalera, batez beste, 14.640 m² da, eta, oro har, 863.747 m²ko museo-gunea osatzen dute. Metatutako datu hori kontuan izanik, esan genezake Euskadin 383 m² bideratzen direla museotara mila biztanleko¹.

Museo espezializatuek eta arte garaikideari eskainitakoek batez besteko orokorrari eskainitakoa baino azalera handixeagoa hartzen dute oro har (46.662 m² eta 18.750 m², hurrenez hurren). Gainerako tipologiek batez bestekoa baino azalera txikiagoa izango lukete, eta natura-zientziei eta historia naturalari eskainitakoak nabarmenduko genituzke, baita museo-etxeak ere, espazio txikiagoak izan ohi baitituzte (1.000 m² baino gutxiago batez beste). Ezarritako tipologietako batean ere katalogatu gabeko museoen eta bildumen metro koadro kopurua ere garrantzitsua da (27.932 m²).

¹ Euskadin zenbat jende bizi zen, 2010eko urtarrilaren 1ean: 2.178.339 lagun.

3.2. ZERBITZUAK ETA EKIPAMENDUAK

Euskadiko museoek eta bildumek eskaini ohi dituzten zerbitzuak, eskuarki, bisitaldi gidatuak eta erakusketa iraunkorraren inguruko informazioa dira (aretoan bertan, edota panelen, areto-orrien, eskuliburuaren eta tankerako bidez). Zerbitzuok erakundeen % 90ek baino gehiagok eskaintzen dituzte.

Neurri askoz ere txikiagoan (hamar museotatik lautan baino gutxiagoan) beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dira; hala nola, hirugarrenei espazioa alokatzea, urritasunak dituzten pertsonen informazioa ematea, ingurumen-kontrola edota euskarri elektronikoko gidak (audiogidak, esaterako).

Ekipamenduei dagokienez, Euskadiko hamar museotatik zortzi egokituta daude urritasunak dituzten pertsonentzat. Era berean, nabarmena da denda edota liburu-denda duten museo-kopurua, baita jarduera didaktikoetarako eta ikus-entzunezkoetarako guneak edota liburutegia dituztenak ere.

Neurri txikiagoan, beste azpiegitura batzuk ere izan ohi dituzte; hala nola, ekitaldi-aretoa, aparkamendu publikoa, ikerlarietarako aretoak, zaharberritze-tailerra edota kafetegi/jatetxea. Argazkigintza-laborategia duen erakunderik apenas dagoen.

22. irudia. Museoak eta bildumak, zerbitzu- eta ekipamendu-baliabideen arabera (%). 2010


	Zerbitzuen eta ekipamenduen tipologia	Museoen %
ZERBITZUAK	Bisita gidatuak	95,2
	Erakusketa iraunkorrari buruzko informazioa	93,5
	Lekuen alokairu-zerbitzua	35,5
	Urritasunak dituzten pertsonentzako informazio irisgarria	35,5
	Ingurumen-kontrola	33,9
	Euskarri elektronikoko gidak	24,2
EKIPAMENDUA	Urritasuna dutenentzako sarbidea	83,9
	Saltokia/Liburu-denda	67,7
	Jarduera didaktikoetarako lekua	67,7
	Ikus-entzunezko gela	64,5
	Liburutegia	62,9
	Areto nagusia	45,2
	Aparkaleku publikoa	35,5
	Ikerlarietarako aretoa	32,3
	Zaharberritze-tailerra	27,4
	Kafetegi/Jatetxea	22,6
	Argazkigintza-laborategiak	4,8

Oinarria: 62 museo eta bilduma (erantzun anitza)

3.3. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Euskadiko museo eta bilduma ia guztiek dituzte ordenagailua eta webgunea, eguneroko jardunetarako. Web orriaren ezaugarriei dagokienez, erakunde gehienek webgunea beste web orri baten barruan txertatuta daukate (% 60); gainerakoak museoan atari batekin konektaturik daude (% 22,2), edota atari batekin baino gehiagorekin (% 17,8).

23. irudia. Museoak eta bildumak, ordenagailu eta webguneen arabera (%). 2010




Oinarria: 62 museo eta bilduma

Hainbat museo eta bilduma tipologiatan, erakundeen ehuneko txiki batek ez dauka oraindik ez ordenagailurik, ez webgunerik. Batez ere museo espezializatuen eta etnografia- eta antropologia-museoen kasua da. Era berean, beste museo-tipologia batek badu erakunderen bat web orririk gabe (arkeologikoa, zientzia eta teknologia eta aztarnategiak). Gainerako tipologietan, erakundeen % 100ek badituzte teknologia horiek

24. irudia. Ordenagailuak eta webgunea izatea museoan eta bildumen tipologiaren arabera (%). 2010


Tipologia	Ordenagailua duten erakundeen %	Web orria duten erakundeen %
Arkeologikoak	100,0	50,0
Arte Garaikidea	100,0	100,0
Dekorazio-arteak	100,0	100,0
Arte Ederrak	100,0	100,0
Museo-etxeak	100,0	100,0
Zientzia eta Teknologia	100,0	80,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	100,0	100,0
Aztarnategiak	100,0	83,3
Orokorra	100,0	100,0
Historikoa	100,0	100,0
Bestelakoak	100,0	100,0
Espezializatuak	86,7	86,7
Etnografia eta Antropologia	71,4	85,7

Oinarria: 62 museo eta bilduma

25. irudia. Ordenagailuaren erabilera museoetan eta bildumetan (%). 2010

Oinarria: 58 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Kontsultatutako museo eta bilduma ia guztiek erabiltzen dute ordenagailua, administrazioarekin eta kudeaketarekin lotutako egitekorik ohikoenetarako. Bitarteko hau Interneten sartzeko erabiltzen duten museo eta bilduma kopurua ere nabarmena da (% 84,5). Ez da hain ohikoa, hala ere, funtsen dokumentaziorako edota bisitarien informazioa emateko bitarteko hori baliatzea (% 65,5).

26. irudia. Museoei eta bildumei buruzko webguneen helburuak (%). 2010

Oinarria: 57 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Ikerketan parte hartu duten museo eta bilduma guztien aburuz, webgunea bisitari potentzialari oinarrizko informazioa eskaintzeko erreminta da (helbidea, programazioa, ordutegia, salneurriak, eta abar). Hamar erakundetatik zazpiren ustean, berriz, bisitariak museoarekin harremanetan ipintzeko modua ere bada (posta elektronikoa, eta abar).

Era berean, komunikazio-erreminta hau hezkuntza-jarduerak eskaintzeko ere baliatzen dute (esate baterako, material didaktikorako sarbidea), baita museoa bisitariarekin harremanetan ipintzeko ere (esaterako, informazio-buletinen bitartez). Museo eta bilduma askoz ere gutxiagok erabiltzen dute web orria bisita birtuaretarako, bildumak erakusteko, ikerketa zientifikoetarako informazioa emateko edota online eskaintzen diren gainerako zerbitzuetarako. Edonola ere, webguneen erabilera posibleen aukeretan urriena sarrerak online saldu ahal izatea da (% 5,3).

4.


SARBIDEA

Kapitulu honetan, museoen eta bildumen egungo egoera xehe-xehe aztertuko dugu, irekitzeko ordutegiari, sarbideari edota salneurriei dagokienez.

4.1. JENDAURREKO IREKITZE-MODALITATEA


Euskadiko ia museo eta bilduma guztiak irekitzen dizkiote ateak publikoari etenik gabe. Museo gehienak urtean gutxienez 300 egunez irekita egoten dira (% 73,3).

27. irudia. Museoak eta bildumak, jendaurreko irekitze-modalitatearen arabera (%) 2010



Oinarria: 63 museo eta bilduma

28. irudia. Museoak eta bildumak, urtean irekitako egun-kopuruaren arabera (%). 2010




Oinarria: 60 museo eta bilduma

4.2. SARRERA MOTA

Erakunde batek izan ezik, Euskadiko museo eta bilduma guztiek sarrera librea dute. Bestalde, parte hartzen duten erakundeen % 63,4n ezinbestekoa da aldez aurretik eskaera egitea, batez ere taldekako bisitak direnean.

29. irudia. Museo eta bildumetarako sarbidia (%). 2010




Oinarria: 63 museo eta bilduma

4.3. DOAKO SARRERA EDO TARIFADUNA


Museoen eta bildumen % 60k baino gehiagok tarifa bat kobratzen du instalazioetara sartu ahal izateko. Praktika hori ohikoagoa da arte garaikideko, dekorazio-arteetako eta bestelakoen kategorian sartutako museoetan. Aitzitik, natura-zientzietako edota historia naturaleko museoak dohainik izan ohi dira. Era berean, arte ederretako museoek eta orokorrek ere sarrera dohainik izan ohi dute.

30. irudia. Museoen eta bildumen sarrera-mota (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma


31. irudia. Museoen eta bildumen tarifa-mota, tipologiaren arabera (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma


Instalazioetara sartzeko tarifa kobratzen duten museoen eta bildumen artean, ia % 90ek tarifa osoak eskaintzen ditu (oinarrizko tarifa, tarifa espezifikodun behin-behineko erakusketak aintzat hartu gabe), eta % 86,8k, berriz, nolabaiteko tarifa murriztua edota ia doakoa eskaintzen du. Hamar museo eta bildumatatik bostek sarrera bereziak eskuratzeko aukera ematen du (urtekoa, doan sartzekoa, konbinatuak edota bestelakoak).

32. irudia. Sarrera ordaindu beharreko museoen eta bildumen tarifa-mota (%). 2010



Oinarria: 38 museo eta bilduma (erantzun anitza)

33. irudia. Museoak eta bildumak, doako eta murriztutako sarrerak zer talderi ematen dizkioten kontuan hartuta (%). 2010



Oinarria: 33 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Doako tarifak batez ere haurrentzat eta beste talde batzuentzat izan ohi dira. Oso museo gutxik eskaintzen diete sarrera mota hau adinekoei edota bertakoei, eta askoz ere gutxiagok ezinduei, ikasleei edota bestelako taldeei.


Tarifa murriztuak askoz talde gehiagori eskaintzen dizkiete. Alde horretatik, erakundeen % 75ek baino gehiagok deskontuak egiten dizkiete taldeei, ikasleei edota adinekoei. Neurri txikiagoan egiten dizkiete tankerako eskaintzak haurrei, ezinduei edota bestelako taldeei. Herrikoei deskontuak egiten dion museorik edota bildumarik apenas dagoen.

5.

BISITARIAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museoetan eta bildumetan 2010ean izandako bisitari-kopuruaren zifra nagusiak daude.

34. irudia. Museo eta bildumetan aurreikusitako bisitari-kopurua, lurralde historikoen arabera (%). 2010




Bisitarien batez bestekoa museoko: **38.272 lagun**

Oinarria: 62 museo eta bilduma

Parte hartu duten museoek eta bildumek orotara 2.372.889 bisitari izan dituzte 2010ean; horrek esan nahi du aztertutako urtean batez beste 38.000 lagun izan dituela bakoitzak. Bizkaiak jaso du bisitari gehien, % 59,5, nahiz eta Euskadiko museoen % 34,9 baino ez dagoen lurralde historiko horretan. Arabak izan du bisitari gutxien 2010ean: % 11,2.

35. irudia. Museo eta bildumetan izan den bisitari-kopurua, tipologiaen arabera (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma

Bisitari-kopuru handiena batez ere arte garaikideko museoek eta bildumek izaten dute; ia bisitarien erdiak, hain zuzen. Kopuru horietatik dezente aldentzen dira gainerakoak; garrantziaren arabera, gai orokorrei buruzkoak (% 12,8), arte ederretakoak (% 11,3) eta zientzia eta teknologiari buruzkoak (% 8,3).

36. irudia. Museo eta bildumetan aurreikusitako bisitari-kopurua, tipologiaren eta lurralde historikoen arabera (balio absolutua). 2010

Tipologia	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	GUZTIRA
Arkeologikoak	6.419	8.682	26.176	41.277
Arte Garaikidea	101.000	956.417	--	1.057.417
Dekorazio-arteak	--	15.282	--	15.282
Arte Ederrak	50.021	217.577	--	267.598
Museo-etxeak	--	--	40.245	40.245
Zientzia eta Teknologia	--	21.083	174.896	195.979
Natura-zientziak eta Historia Naturala	10.859	--	15.814	26.673
Azarnategiak	2.489	20.378	46.895	69.762
Espezializatuak	80.330	67.635	42.193	190.158
Etnografia eta Antropologia	14.336	47.305	24.248	85.889
Orokorra	--	--	304.443	304.443
Historikoa	--	58.648	7.093	65.741
Bestelakoak	--	--	12.425	12.425
GUZTIRA	265.454	1.413.007	694.428	2.372.889

Oinarria: 62 museo eta bilduma

Lurralde historikoaren arabera jasotako bisitari-kopurua aztertzean museoaren eta bildumen tipologia aintzat hartuta, honako ondorio hauetara iritsi gaitezke:

- Araban, bisitari gehien Gasteizko Arte Garaikideko museoak (Artium) jaso du. Museo espezializatuak ere badute garrantzirik, horien artean, BIBAT museoak (garai bateko Naipe eta Arkeologia museoak) bai eta Arte Ederretako museoak ere.
- Bizkaian, Guggenheim museoak jaso du bisitari gehien alde handiarekin. Arte Ederretako museoa du ondoren.
- Gipuzkoan, tipologia orokorreko museoek eta bildumek erakarri dute bisitari gehien; hor sartzan dira, konparazio batera, aquariuma edota San Telmo museoa. Era berean, garrantzitsuak dira zientzia eta teknologia museoak ere.


37. irudia. Museo eta bildumetan aurreikusitako bisitari atzerritarren kopurua, lurralde historikoen arabera (balio absolutua eta %). 2010

Lurralde historikoa	Atzerriko bisitari kopurua	Atzerritarren ehunekoa, bisitari kopuru osoari dagokionez
Araba	21.634	8,1
Bizkaia	642.682	45,5
Gipuzkoa	83.163	12,0
EAEko GUZTIRA	747.479	31,5

Oinarria: 62 museo eta bilduma

2010ean orotara 747.479 bisitari atzerritar izan ziren museo eta bildumetan; hau da, bisitarien % 31,5. Bizkaia izan du atzerritar gehieneko bisita (atzerritarren % 80 Guggenheim museoak izaten du). Araban izan dira bisitari atzerritar gutxien.

38. irudia. Museo eta bildumetara atzerritik etorritako bisitari-kopurua, tipologiaren arabera (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma

Atzerriko bisitari gehien arte garaikideko museoetan izan da; multzo horren barruan sartzen dira, esaterako, Guggenheim museoa (bisitarien % 62 atzerritarrak dira) edota Artium museoa (bisitarien % 14 atzerritarrak). Ondoren museo eta bilduma historikoak etorriko lirateke (batez ere Euskal Herriko museoa edota Gernikako Bakearen fundazio museoa), orokorrak (Donostiako aquariuma) edota arte ederretakoak (Bilboko Arte Ederretako museoa, batez ere).

6.


ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK

Kapitulu honetan museoek eta bildumek 2010ean sustatu dituzten erakusketen eta argitalpenen emaitzak aurkeztuko ditugu.

6.1. ERAKUSKETAK ETA BESTE JARDUERA BATZUK


Ikerketan parte hartu duten Euskadiko museo eta bildumen artean, hamarretik zazpik egiten dituzte aldi baterako erakusketak. Joera hori ohikoagoa da arte garaikideko, dekorazio-arteetako edota arte ederretako museoetan, baita zientzia, teknologia eta bestelako kategoriakoetan ere. Aitzitik, jarduera horiek nekezago egiten dituzte museo-etxeek, museo arkeologikoek, natura-zientziei buruzkoek edota aztarnategiek. .

39. irudia. Aldi baterako erakusketak museoetan eta bildumetan (%). 2010




Oinarria: 62 museo eta bilduma

40. irudia. Museo eta bildumetan egindako aldi baterako erakusketak, tipologiaren arabera (%). 2010




Oinarria: 62 museo eta bilduma

41. irudia. Museoeek eta bildumek egindako beste jarduera batzuk (%). 2010

Oinarria: 55 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Aldi baterako erakusketez gain, museo eta bildumek beste era bateko jarduerak ere egiten dituzte; horien artean, talde bereziei eskainitako hezkuntza-jarduerak (oro har, erakundeen % 90ek egin ohi ditu horrelakoak). Era berean, aipatzekoa da ikastaroak, mintegiak, konferentziak, proiektzioak eta bestelako kultur jarduerak antolatzen dituzten museo- eta bilduma-kopurua. Kontzertuak ez dira hain ohikoak museo-guneetan (hamarretik hiruk egiten dituzte).

42. irudia. Museoetan eta bildumetan egindako jarduera hezigarrien tipologia (%). 2010


Oinarria: 49 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Hezkuntza-jarduera gehienak haurrentzat antolatu ohi dituzte. Gogoan hartzen diren beste kolektibo batzuk familiak dira, baita adinekoak eta urritasunak dituzten pertsonak ere. Gutxiengo etnikoentzat izaten da tankera honetako jarduerarik gutxien.

6.2. ARGITALPENAK


Ikerketan parte hartzen duten erakundeen artetik, 45ek adierazi dute argitalpenen bat egin dutela 2010ean. Argitalpen motari dagokionez, berriz, hamarretik zazpi dibulgazio-materiala izaten da. Neurri apalagoan argitaratu dituzte gidak (% 35,6), material didaktikoa (% 33,3), aldizkako argitalpenak (% 26,7) edota katalogo zientifikoak (% 20,0).

43. irudia. Materiala argitaratzea museoetan eta bildumetan (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma


44. irudia. Museoek eta bildumek argitaratutakoa 2010ean (%). 2010




Oinarria: 45 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Argitalpen gehienak gaztelaniaz eta euskaraz izaten dira (hamarretik bederatzi). Atzerriko hizkuntzei dagokienez, ingelesa eta frantsesa dira nagusi, eta biek ere antzeko ehunekoak dituzte (% 46,7 eta % 43,3, hurrenez hurren). Argitalpenen % 10 baino ez zen izan alemanez, eta % 3,3 beste hizkuntzaren batean.

45. irudia. Museoek eta bildumek 2010ean argitalpenetan erabilitako hizkuntza (%). 2010



Oinarria: 30 museo eta bilduma (erantzun anitza)

46. irudia. Museoen eta bildumen 2010ean argitalpenetan erabilitako euskarria (%).

Oinarria: 45 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Argitalpenak zer euskarri-motatan eskaintzen dituzten kontuan hartuta, ia kasu guztietan egiten dira argitalpenak paperean. Gainerako euskarriek garrantzi txikiagoa dute, euskarri tradizionalagoaren alboan: hamar museotik bik bakarrik egiten ditu argitalpen elektronikoak edota web orrian eskuratzeko moduko euskarrian.

7.


GIZA BALIABIDEAK

Kapitulu honetan Euskadiko museo eta bildumen ezaugarri nagusiak bilduko ditugu, langileei dagokienez: lan-harremana, lan-kategoria, generoa, lanaldi mota eta praktiketako langileak.

7.1. LAN-HARREMANAK

Auzi honi erantzun dioten 61 museo eta bildumek emandako datuen arabera, erakundeek orotara 685 langile dituzte. Kasurik gehienetan, ordaindutako langileak dira (% 86,7), eta nabarmentzekoa da lanpostu egonkorra daukaten langile kopurua (% 70,6). Neurri askoz txikiagoan (% 5,3) erakunde hauekin bat egiten dute ordaindu gabeko langileek; hau da, erakundeko langileak, museoan lan egiten dutenak, eta ordainsaririk jaso gabe lanean ari direnak (elizako edota unibertsitateko langileak, esaterako). Era berean, nabarmentzekoa da langile boluntarioen partaidetza (% 8,0), hain zuzen, erakundeekin modu altruistan lan egiten dutenena.

47. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lan-harremanaren arabera (%). 2010



Oinarria: 61 museo eta bilduma

48. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lan-harremanaren arabera eta tipologiaka (% horizontala). 2010

Tipologia	Ordaindua/ lanpostu iraunkorra	Ordaindua/aldi baterako lanpostua	Ordaindu gabea	GUZTIRA
Arkeologikoak	79,5	15,4	5,1	100,0
Arte Contemporáneo	96,0	4,0	0,0	100,0
Dekorazio-arteak	66,7	33,3	0,0	100,0
Arte Ederrak	84,8	15,2	0,0	100,0
Museo-etxeak	100,0	0,0	0,0	100,0
Zientzia eta Teknologia	65,9	22,7	11,4	100,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	88,9	11,1	0,0	100,0
Aztarnategiak	68,4	13,2	18,4	100,0
Espezializatuak	73,3	21,1	5,6	100,0
Etnografia eta Antropologia	55,3	8,5	36,2	100,0
Orokorra	80,9	19,1	0,0	100,0
Historikoa	65,8	34,2	0,0	100,0
Bestelakoak	34,5	65,5	0,0	100,0

Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museoen eta bildumen tipologiaren arabera lan-harremanak xehe aztertzen baditugu, honako ondorioak atera ditzakegu:


- Lanpostu iraunkorra duten langile ordainsaridunak arte garaikideko, museo-etxeetako, arte ederretako, natura-zientzietako, historia naturaleko eta historia orokorreko museo eta bildumetan egoten dira (langile finkoak % 80 baino gehiago dira).
- Aldi baterako kontratazioak ohikoagoak dira dekorazio-arteetako edota historia museo eta bildumetan, baita bestelakoak kategoriaren barruan bildutakoetan ere (aldi baterako kontratudun langile ordainsaridunen kopurua % 30 baino handiagoa da).
- Ordaindu gabeko langileak, batez ere, etnografia eta antropologia museo eta bildumetan egoten dira, baita aztarnategietan ere.

7.2. LANBIDE-KATEGORIA

Euskadiko museo eta bilduma gehienetako lanpostuak museo-jardueraren kudeaketarekin lotuta daude (hamar langiletik ia zazpi), eta nabarmentzekoa da espezializatutako langileek duten garrantzia (kontserbatzaileak, zaharberritzaileak, liburuzainak, gidak, eta abar), orotara, % 40 baino gehiago baitira. Administrazio-lanetan aritzen direnak, berriz, langileen % 18,1 dira.

Bestalde, laguntza-postuekin lotutakoak, transbertsalak, (mantentze-lanetako langileak, garbitasuna, zandariak, segurtasuna, eta abar), erakundeetako langileen % 30 baino gehiago dira.

49. irudia. Museo eta bildumetako atxikitako langileak, lanbide-kategoriaren arabera (%). 2010



Oinarria: 61 museo eta bilduma

50. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lan-kategoriaren arabera eta tipologia (% horizontala).

2010

Tipologia	Zuzendaritza	Langile espezializatuak	Administrazioko langileak	Zaintza- eta segurtasun- langileak	Mantentze- langileak eta garbitzaileak	Bestelakoak	GUZTIRA
Arkeologikoak	7,7	53,8	10,3	7,7	17,9	2,6	100,0
Arte Garaikidea	1,6	13,7	45,2	4,8	0,0	34,7	100,0
Dekorazio-arteak	14,3	14,3	28,6	0,0	0,0	42,9	100,0
Arte Ederrak	5,1	26,6	17,7	17,7	17,7	15,2	100,0
Museo-etxeak	11,1	88,9	0,0	0,0	0,0	0,0	100,0
Zientzia eta Teknologia	5,6	43,7	11,3	1,4	23,9	14,1	100,0
Natura-zientziak eta Historia Naturala	5,6	55,6	16,7	11,1	11,1	0,0	100,0
Aztarnategiak	10,5	63,2	15,8	2,6	5,3	2,6	100,0
Espezializatuak	11,3	38,1	9,3	20,6	10,3	10,3	100,0
Etnografia eta Antropologia	5,9	69,1	7,4	4,4	1,5	11,8	100,0
Orokorra	2,9	61,8	11,8	13,2	10,3	0,0	100,0
Historikoa	15,8	26,3	15,8	13,2	15,8	13,2	100,0
Bestelakoak	3,4	69,0	10,3	0,0	0,0	17,2	100,0

Oinarria: 61 museo eta bilduma

Tipologiaren arabera museo eta bildumetako langileen kategoriaren banaketa aztertzen badugu, ikusiko dugu hainbat erakunde-tipologiatan lan-kategoria batzuk gehiago agertzen direla:

- Zuzendaritza: historikoak eta dekorazio-arteak
- Teknikariak: museo-etxeak, etnografikoak eta antropologikoak
- Administrazioko langileak: arte garaikidea
- Babes langileak, transbertsalak: arte ederrak, espezializatuak, zientzia eta teknologia

51. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lanbide-kategoriaren eta lan-harremanaren arabera (% horizontala). 2010

Lanbide-kategoria	Ordaindu/ lanpostu iraunkorra	Ordaindu/ aldi baterako lanpostua	Ordaindu gabea	Langile boluntarioak	GUZTIRA
Zuzendaritza	77,3	11,4	9,1	2,3	100,0
Langile espezializatuak	59,9	19,0	9,7	11,4	100,0
Administrazioko langileak	87,0	10,6	0,8	1,6	100,0
Mantentze-langileak eta garbitzaileak	78,1	21,9	0,0	0,0	100,0
Zaintza- eta segurtasun- langileak	77,3	12,1	3,0	7,6	100,0
Beste langile batzuk	69,4	15,3	1,0	14,3	100,0


Oinarria: 61 museo eta bilduma

Administrarien lan-kategoriak du batik bat ordainsaridun langile finko gehien. Aitzitik, aldi baterako kontratazioak ohikoagoak dira langile espezializatuaren kasuan, baita ikuskaritza eta segurtasun postuetan ere. Zuzendari eta teknikari postuek izaten dute ordainsari gabeko langile edota boluntario kopuru txikiena.

7.3. GENEROA


Museo eta bildumetan lan egiten duten pertsonak generoaren arabera aztertuta, emakumezko gehiago daudela nabarmenduko dugu gizonaek baino; hain zuzen, % 61,3 eta % 38,7, hurrenez hurren. Hala ere, lan-kategoriaren arabera alde nabarmenak daudela ikusiko dugu. Langile espezializatuak eta, batez ere, administrariak gehienbat emakumezkoak izaten dira. Gainerako postuak gizonaek betetzen dituzte batik bat (zuzendaritza, mantentze-lanak eta garbitasuna, ikuskaritza eta segurtasun langileak).

52. irudia. Museo eta bildumetako langile-banaketa, generoaren arabera (%). 2010



Oinarria: 61 museo eta bilduma

53. irudia. Museo eta bildumetako langileak, generoaren eta horien lanbide-kategoriaren arabera (%). 2010




Oinarria: 61 museo eta bilduma

7.4. LANALDI MOTA


Museo-guneetan lan egiten duten langileen artean, lanaldi osoak dira nagusi. Lanaldi partzialean aritzen direnen artean, lanaldi erdiak dira pixkatxo bat nagusi, lanaldi erdia baino gehiago edo gutxiago lan egiten dutenekin alderatuta (% 58,5 eta % 41,5, hurrenez hurren).

54. irudia. Museo eta bildumetako langile-banaketa, lanaldi motaren arabera (%). 2010



Oinarria: 61 museo eta bilduma

55. irudia. Museo eta bildumetako langileak, lanaldi motaren eta lanbide-kategoriaren arabera (%). 2010




Oinarria: 61 museo eta bilduma

Museo eta bildumetan lan egiten dutenen artean nolabaiteko desberdintasunak nabari dira, lan-kategoriaren arabera. Ikuskaritza eta segurtasun arloetako langile ia guztiak lanaldi osoz aritzen dira. Aitzitik, lanaldi partzialak ohikoagoak dira mantentze-lanetan eta garbiketan aritzen direnen artean, baita langile espezializatuen kasuan ere.

7.5. PRAKTIKETAKO LANGILEAK

Parte hartu duten museoen eta bildumen % 22,6k bekadunak edota praktiketako ikasleak eduki ditu 2010ean. Lurrealdekoa, Bizkaia dauka ehunetik handiena (% 57,1). Gipuzkoak jarraitzen dio, % 35,7rekin, eta, azkenik, Arabak, % 7,1ekin.

56. irudia. Museo eta bildumetan bekadunak edo praktiketako ikasleak kontratatzea (%). 2010



Oinarria: 62 museo eta bilduma

8


ERAKUNDEEN EKONOMIA-DATUAK

Kapitulu honek museoen eta bildumen datu ekonomikoei buruzko analisi zehatza ematen du, finantzaketari, diru-iturriari eta gastuei dagokienez.

8.1. FINANTZAKETA ETA DIRU-ITURRIAK

Auzi honi erantzun dioten 41 museo eta bildumek emandako datuen arabera, hainbat iturritatik jasotzen dute finantzaketa; nabarmentzekoak dira, batez ere, sektore publikoak emandako diru-laguntzak (% 97,6), baita diru-sarrera propioak ere (% 82,9). Garrantzitsua da, hala ere, ekarpen pribatuen kopurua.


57. irudia. Museoen eta bildumen finantzaketa-iturriak (%). 2010




Oinarria: 41 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Diru-sarrera propioekin finantzatzen diren museo eta bildumen artean, % 85,3k sarreren bidez lortzen dituzte diru-iturri horiek, eta % 70,6k bestelako iturrien bidez, esaterako, museoa bera alokatuta, bestelako salmentak, eta abar.

58. irudia. Museoei eta bildumek sortutako diru-sarrerak (%). 2010




Oinarria: 34 museo eta bilduma (erantzun anitza)

59. irudia. Museoen eta bildumen finantzaketa-iturri publikoak (%). 2010


Oinarria: 40 museo eta bilduma (erantzun anitza)

Museo eta bildumen diru-iturri publiko nagusiak toki-administrazioak emanikoak dira, ondoren, autonomia erkidegoko administrazioak emanak. Estatuko Administrazio Orokorrak edota Europar Batasunak emandako dirua jaso duen museo eta bilduma oso gutxi dago Euskadin.

8.2. GASTUAK**60. irudia.** Museoen eta bildumen gastuak (%). 2010

Oinarria: 41 museo eta bilduma

Euskadiko museoen eta bildumen gastu-bide nagusia ondasunetan eta zerbitzuetan egindako ohiko gastuak izan ohi dira. Ondoren, alde nabarmenarekin, langileen gastua etorriko litzateke (% 30); hau da, museoan lan egiten dutenek sortutako urteko ordainsariak. Erakundeen gastuaren % 6,9 baino ez dute bideratzen inbertsioetara.

61. irudia. Museoen eta bildumen inbertsioak (%). 2010

Oinarria: 41 museo eta bilduma


Inbertsio orokorrenak bestelako inbertsio-gastuen partidan kontabilizatzen dira; horietan, besteak beste, lursailak, higiezinak edota inbentarioan sartzeko moduko higigarriak sartuko lirateke. Horren ondoren, museo-funtsak erostea etorriko litzateke; hau da, bilduman txertatzeko ondasunak erosteko egindako ordainketak. Azkenik, obretan egindako inbertsioak dauzkagu.

9.

MUSEO-FUNTSAK

Kapitulu honetan, Euskadiko museo eta bildumek 2010ean eduki dituzten museo-funtsen inguruko datu nagusiak aztertuko ditugu.


62. irudia. Bildumaren beraren museo-funtsak edo beste erakundeei dagozkienak (%). 2010



Oinarria: 54 museo eta bilduma

